

EUSKARA ETA EUSKAL HEZKUNTZA «JASATEN ARI DIREN ERASOAK» SALATZEKO JENDE EZAGUN UGARI BILDU ZEN

Madril eta Parisen «hezkuntza inposaketaren aurka» milaka lagun manifestatu dira Iruñean

■ Nafarroako hiriburuko kaleetan euskaraz egindako hezkuntza propio baten aldeko aldarrikapena nagusitu zen

■ «Euskal Herriak bere historia interpretatzeko gaitasuna badu», erantzun zioten Espainiako Historiako Errege Akademiari

■ Atzokoa euskarak eta euskal kulturak jasaten dituzten erasoer erantzuteko udazkenean hasiko den dinamikaren hasiera izan zen

Irene Arrizurieta / Iruñea

EUSKARAREN eta euskal kulturaren aurka azkenaldian esan eta egin direnak salatzeke, milaka lagun bildu ziren atzo Iruñean, EHk deituta. Nafarroako hiriburuko autobus geltokitik manifestazioaren buruan sei dantzari abiatu ziren, Euskal Herriko herrialdeak irudikatzen zituzten armarrikin, atzetik beste dantzari batzuek ikurrina zabalik zeramatela eta ondoren gairontzeko elkarretaratua, eta aurrean zein atzean Espainiako Polizia orpoz orpoz zutela.

Eskubidea dena defendatu, Euskal Herria burujabe pankartaren atzean, HBko Mahai Nazionalako hainbat kide zihoazen, eta, haien atzetik, euskal kulturaren ordezkari diren jende ugari, *Gure historia guk idatziko dugu. Euskal Herria burujabe* pankarta zeramatela.

Espainiatik bidali liburuak lurrean

Bidean *Euskal Herrian euskaraz* eta *Euskal eskola nazionala* leloak oihukatu zituzten bertaratuek behin eta berriro. Merindadeen plazan Espainiako Gobernu



CRISTINA ABADIA

Nafarroako Gobernu Ordezkaritzaren aurrean erdarazko eskola liburuak bota zituzten manifestariak.

Ordezkaritzara iristean, egoitzako atarian Espainiatik bidaltzen dituzten hainbat eskola liburu bota zituzten lurrera, jendeak ekintza txalotzen zuen bitartean. Tasio Erkizia EHko kideak ekintza sinboliko harekin inposaketarik ez dutela onartzen azpimarratu nahi zutela esan zuen. «Ez dugu ez Madrilen ez Parisen egindako testurik onartzen. Herri hau ez da beste batzuk baino azkarra baina tontoagoa ere ez; munduko beste herriek bezala, Euskal Herriak badu gai-

tasuna bere herriaren historia interpretatzeko, bere hezkuntza eredu bultzatzeko, bere proiektu pedagogiko propioak gauzatu eta bideratzeko», azpimarratu zuen. Ildo berean, PPko gobernua herri baten «bihotza eta arima» diren hizkuntza eta hezkuntza «ezabatu» nahia dituela salatu zuen. «PPren hezkuntza eredu inposatzerik ez dugu onartuko», adierazi zuen.

Liburuak Gobernu Ordezkaritzako lurrean utzi eta gero, manifestazioak Gaztelu

Plazako bidea hartu zuen. Behin hara iritsita, plazako kioskotik Fernando Barrena EHko Nafarroako parlamentarioak salatu zuen euskararen eta euskal kulturaren aurkako erasoak ez direla berriak. Horren erakusgarri, Nafarroako Unibertsitate Publikoan eta Nafarroako hainbat tokitan euskaraz ikasteko eta mintzatzeko dauden arazoak aitatu zituen. Dena dela, etsipenean ez erortzeko deia egin zuen. «Lasai eta tinko erantzun behar diegu eraso

horiei. Indar metaketa handiak lortzeko ahaleginak egin behar ditugu. Hau ez da lasterketa motza izan, luzea baizik», gaineratu zuen.

Ildo horretan, atzokoa udazkenean abiatu beharreko dinamika zabalaren hasiera besterik ez dela adierazi zuen Barrenak. «Espainiako hezkuntza inposaketa zentralista eta bateratuaren aurka egiteko eragile sozialek, politikoeak, ekonomikoek eta kulturek bultzatu beharreko dinamika da», azaldu zuen.

erreakzioak

Patxi Bisquert • Aktorea

«Hemen beste kultura bat badela onartu behar dute espainiarrek»

► «Euskararen eta euskal hezkuntzaren aurka azkenaldian egin diren erasoengatik etorri naiz Iruñera. Gizartea hainbeste espainiar nahi izatea ez da zilegi; beste herrialdeetan kultura anitz daude, eta espainiarrek onartu egin behar dute hori», esan zuen aktoreak. Ildo berean, zera gehitu zuen: «Euskal Herrian beste kultura bat dagoela onartu behar dute, eta horren aurka Espainiako Historiako Errege Akademiak botatako zikinari aurre egitera etorri naiz».

Xabier Mikel Errekondo • Portland-eko eskubaloi jokalaria

«Nafarroan garrantzitsuagoa da euskararen jazarpena, larriagoa delako»

► «Euskararen atal garrantzitsua den hezkuntza bultzatzen jarraitu behar dugu. Iruñean eta Nafarroan, gainera, garrantzi handiagoa du, euskarak hemen pairatzen duen jazarpena larriagoa delako. Euskararen alde lagundu behar denean, beti hor izango gara», esan zuen. «Euskal Herriak hezkuntza eredu propioa behar du, eta ez digu balio besteek dutenak, eta ez digute nolako behar duen izan esan beharrik», erantsi zuen.

Patxi Zabaleta • Idazlea eta Euskaltzaindiko kidea

«Historian akademiak egin dezakeen gauza serio bakarra da dimititu eta desagertzea»

► «Nafar guztiona den ondarea eta eskubidea, euskara alegia, ez delako behar bezala errespetatzen etorri naiz, eta behar den guztietan etorriko naiz». «Espainiako Historiaren Errege Akademiaren txostena lotsagarria da, inolako zientziarik eta lotsarik gabekoa. Horren ondorioz, gauza bat ikusten da: historian akademia baten egin dezakeen gauza serioa bat bakarra dela: dimititu eta desagertzea», gaineratu zuen.

Sagrario Aleman • Arturo Kanpion euskaltegiko zuzendaria

«Euskararen aurka esandakoetan kezkarriena jendearengan izan dezakeen eragina da»

► «Euskara, eta euskal kultura orokorrean, adierazpen publikoetan nola izan den tratatua ikusi ondoren, erakunde ofizialetan dauden jendeen aldetik erantzuna eman beharra zegoen». «Adierazpen horiekin eta atzetik dakartenarekin jende asko kezkatu da», esan zuen. «Gerta daiteke erakundeek ematen dituzten diru laguntzetan eragina izatea, baina kezkarriena jendearengan izan dezakeen eragina dela uste dut».